

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 17. atala

DATA: 2024/10/18

GUREAN

GAU BELTZA... BADATOR!

Gau Beltza gero eta gertuago dugu eta urtero bezala, ekintza bereziak antolatuko ditugu ikastolan. Altzako San Martzial plazan ikusiko diren kartelak margotzen hasi gara dagoeneko, ikasleek egindako bideo beldurgarriak grabatzeari ere ekin diogu... Horretaz gain, irakurtzeko proposamen batekin gatozkizue : "Gau beltz on" liburua. Karmele eta Naiara Mitxelena Etxebestek idatzi eta ilustratutako ipuinak gau xarmagarri horri buruz hitz egiten digu. Opari ederra izan daiteke etxeko txikientzat eta handientzat.



GURE INGURUAN

NAFARROA OINEZ. PIZTU!

NON: ZANGOZA
NOIZ: URRIAK 20



Igande honetan... Nafarroa Oinez!

Zangozako ikastolak jai erraldoia antolatu du igande honetarako. Nafarroako ikastolen jaiaren edizio berriak 3,5 kilometroko ibilbidea izango du urriaren 20an, hiru gunetan banatuta: Piztu, Mintzatu eta Gozatu. Familia osoarentzako ekintza ezberdinak eskainiko dizkigute. Anima zaitzete!

FAMILIA TAILERRA: DISEINATU ETA ESTANPATU SERIGRAFIAREKIN

NON: GETARIA - BALENCIAGA MUSEOA
NOIZ: URRIAK 19

MUSEOA FAMILIAN

7 eta 14 urte bitarteko umeak dituzten familiak. 3€ pertsonako. Plaza kopurua mugatua.

Beharrezkoa da izen ematea.

Informazioa eta erreserbak:
didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com
Tel: 943 008 840.

